



AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUARENA, GIZA ESKUBIDEEN «RENÉ CASSIN» SARIA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

«René Cassin» sariaren helburua da jendaurrean aintzatestea eta saritzea beren ibilbide pertsonal edo profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak edo kolektiboak.

Sari honen ibilbidea 2003. urtean hasi zen Eusko Jaurlaritzan. 2013ko ekitaldira arte, deialdia giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrak emandako aginduaren bidez egiten zen urtero. Urte horretatik aurrera, urriaren 16ko 427/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautzen da deialdia.

Hogei urte baino gehiagoko ibilbide horretan, epaimahaiak eta giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak bildutako esperientziak agerian utzib du eskasia tekniko eta prozedurazko jakin batzuk aldatzea komeni dela. Bereziki, beharrezkotzat jotzen da administrazio-jarduna eta saria esleitzeko baldintzak hobetzea, bai eta haren oinarri arautzaileak Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakora eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez ezarritako Jaurlaritzaren egitura berrira egokitzea ere.

2024ko urriaren 30ean, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuak René Cassin saria arautzen duen dekretu-proiektuari dagokion hasiera-agindua sinatu zuen. Hala ere, prozeduraren garapenean eragina izan duten ustekabeko hainbat arrazoi direla medio, agindu hori ondoriorik gabe geratu da. Ondorioz, hasteko agindu berri honek aurretik aipatutakoa ordeztu du, arau-proiektuaren izapidetzeari berriro ekiteko, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea egokitzen dela bermatuz, bai eta sariaren eraginkortasuna indartuko duten hobekuntza teknikoak eta prozedurazkoak txertatuz ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak (aurrerantzean, XOEPL), xedapen orokorrak egiteko prozedura zehazten du. Xedapen orokor horiek Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek egiten dituztenei aplikatuko zaizkie.

Ondorio horietarako, izaera orokorreko xedapen arautzaileak dira, edozein gairi buruzkoak direla ere, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen dutenak eta ordenamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak dituztenak, epe jakin edo



zehaztugabe batean hainbat egintzaren oinarri izanik. XOEPLren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dira, eta agindu horretan adierazten den gutxieneko edukia izan beharko dute.

Ildo horretan, aipatu 18/2024 Dekretuak Justizia eta Giza Eskubideen Sailari ematen dio giza eskubideak eta bizikidetzaren baliatzearen baldintzak sustatzeko eskumena.

Egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitutako eskumenen artean, Giza Eskubideak sustatzeko eta bizikidetzaren kultura sustatzeko politika publikoa bultzatzea dago. Beraz, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuak du prozedura honen hasiera agintzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, XOEPLren 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, agindu hau onartzen da, Giza Eskubideen "René Cassin" saria arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Lehenengoa. Erregulazioaren xedea eta helburua.

Dekretu-proiektuaren xedea da «René Cassin» saria arautzea. Sari horren helburua da pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuek, eta irabazi-asmorik gabekoek giza eskubideen arloan egindako jarduera nabarmena jendaurrean aitortzea.

Aurrekoarekin batera, Dekretuaren artikulua Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuan xedatutakora egokitu nahi dira.

Bigarrena. Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

«René Cassin» saria arautzen duen dekretu-proiektuaren helburua da publikoki aitortzea eta saritzea beren ibilbide pertsonal edo profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak edo kolektiboak.

Arau-proposamenak bideragarritasun juridikoa du, bat baitator aplikatu beharreko lege-esparruarekin, eta bideragarritasun materiala ere bai, benetan inplementatzeko behar diren baliabideak eta baldintzak baititu.

Hirugarrena. Araugintza-planean sartzea.

Dekretua egitea sartuta dago Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren urteko arau-plangintzan (2025eko martxoaren 13ko EHAA, 50. zk.).

Laugarrena. Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Arau-ekimena onartzeak "René Cassin" saria arautzen duen urriaren 16ko 427/2013 Dekretua indargabetzea ekarriko du.

Bosgarrena. Eraginaren ebaluazioak.

1.- Generoaren araberako eragina.

Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan xedatutakoaren arabera (2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartu ziren), Lehenengo Jarraibidearen 2.1.b apartatuan, proiektuarekin batera, generoaren araberako eraginari buruzko txostena aurkeztu behar da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aurreikusitakoa. Hala ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari helaraziko zaio, egiazta dezan.

2.- Haur eta nerabeen gaineko eragina.

Dekretu-proiektuak ez du eragin zuzenik arlo horretan.

3.- Gazteen gaineko eragina.

Dekretu-proiektuak ez du eragin zuzenik arlo horretan..

4.- Irisgarritasunean duen eragina.

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, proiektatutako arauak ez du inolako eraginik arlo horretan.

Seigarrena. Eragin ekonomikoa.

Dekretu-proiektuak eragin zuzena du aurrekontu-arloan, eta XOEPLren 15.5 artikuluan araututako memoria ekonomikoa eginez aztertu behar da.

Saria ohorezko aipamen bat, aintzatespen publiko bat eta diru-zenbateko bat izango da, eta giza eskubideen arloan eskumena duen sailerako urtero onartzen diren aurrekontuetan islatuko da. Urteroko deialdiak Giza Eskubideen arloan eskumena duen Zuzendaritzako titularrak kudeatuko ditu, eta horretarako ezinbestekoa izango da aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa izatea.

Zazpigarrena. Administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina.

Dekretu-proiektuak ez du eraginik enpresak sortzeko eta funtzionatzeko administrazio-kargetan, jarduera ekintzailea sustatzeari eta sustatzeari dagokionez.

Zortzigarrena. Idazketa egiteko arauak eta irizpideak.

XOEPLren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera:

1.- Sustatzen den dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren

aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere, bat etorritik lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoarekin.

2.- Dekretu-proiektuaren zehaztapena justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia txertatu beharko da testuan.

3.- Testua ele bitan idatzi beharko da, araua idazteko prozesu osoan zehar hizkuntza-bertsioak egitean bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldeztu aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

4.- Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi behar da.

Bederatzigarrena. Egin beharreko izapideak eta txostenak.

XOEPLren 13.1 artikuluan e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Hasiera batean, izapide eta txosten hauek behar dira dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko:

1.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu-proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita, eta herritarrei berariaz gonbidatuko zaie informazioaz iritzia eman dezaten:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen ordezkari irtenbideak, erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekoa betez, 2024ko abuztuaren 6an, Irekia plataformaren bidez (Eusko Jaurlaritzaren web-plataforma, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta lankidetzat sustatzeko), herritarrei gonbita egin zitzaien argitaratutako eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman zezaten, 20 eguneko epean (argitalpen egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita).

2024ko uztailaren 31n, Legegunean argitaratu zen (Euskal Araudiaren Atari Irekia).

2.- Agindu honen bosgarren apartatuaren arabera, eta XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabera

eraginari buruzko txosten bat egin beharko da, eta Emakunderen esku jarriko da, egiazta dezan.

3.- XOEPLren 13.2 artikulua arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

4.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Memoria horrek, hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko du, eta, nolana ere, XOEPLren 15. artikulua 3. apartatuak aipatzen duen edukia. Era berean, eragin ekonomikorik ez dagoela justifikatuko du memoriak.

5.- Dekretu-proiektua idatzi ondoren, eta dagozkion kontsulta-izapideak egin aurretik, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari aurkeztuko zaio, onar dezan, XOEPLren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, XOEPLren 16.3 artikuluan aurreikusitakoa betez. Argitalpen honen data aldi berean bultza daitezkeen izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango da, baldin eta izapide horiek nahitaez bete beharrekoak ez badira.

Aldez aurreko onarpen-agindua, arau-proiektuarekin batera, Legegunearen lankidetzagunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, lege horretan jasotako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz zein gaztelaniaz zabalduko dela bermatzeko. Gainera, espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

7.- Aldez aurreko onarpen-agindua, arau-proiektuarekin batera, Legegunearen lankidetzagunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, lege horretan jasotako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz zein gaztelaniaz zabalduko dela bermatzeko. Gainera, espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena,

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.- Proiektu dekretuaren edukia kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da jendaurreko informazioaren izapidea, XOEPLren 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez, jarduketa hauek egingo dira:

1) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da proiektu dekretua jendaurrean jartzeko ebazpena. Ebazpen horrek esteka bat izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan, eta bertan eskuragarri egongo da proiektuaren testua, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ahal izan ditzaten 20 egun balioduneko epean, ebazpena EHAAan argitaratzen denetik aurrera.

2) Ebazpen hori, proiektu dekretuaren estekarekin batera, Irekian argitaratuta egongo da.

9.- Ez da ikusten Europar Batasunean izapiderik egin behar denik dekretu-proiektuaren aplikazio-eremua eta xedea kontuan hartuta.

10.- Beharrezkotzat jotzen da Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko bat egitea, XOEPLren 15.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

11.- XOEPLren 19. artikulua arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten hauek eskatu beharko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-kontrolleko txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren ezarritakoaren arabera. Arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jaso eta 15 eguneko epean igorri beharko dira.

16.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak adierazita, XOEPLren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

17.- Proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokienez, XOEPLren 29.1 artikulua arabera, arau-xedapen orokorrak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, bi hizkuntza ofizialetan, indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta bereziki aplikatu beharreko beste xedapen batzuk ikusita, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Giza Eskubideen «René Cassin» saria arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena.- Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarko Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeko organo.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkoak diren azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Bosgarrena.- Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onartutako erabakiaren arabera. Erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartzen da.

Seigarrena.- Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ